

Arene Martin Goikoetxea

B maila • 3 saria



Arene Martin Goikoetxea Zegaman jaio zen, 2006ko abenduaren 30ean. Aitxuri Herri Eskolan ospatzen ziren idaz leihaketek bultzatu zuten mundu honetara eta geroztik haren irudimenarekin jolastea izan zuen gogoko.

Urte asko igaro dira interesa galdu zuenetik eta barruan sentitzen zuen hori era batera edo bestera adierazteko beharrean zegoela, aukera hau aurkeztu zen. Esperientzia zoragarria izan da aintzinako "Arene" horrekin tarte bat partekatzeke.

Bidaia eta kultura ezberdinak ezagutzea du gustukoen, horregatik bere proiektuetan, Batxilergo Estatu Batuetan egitea dago eta nola ez, "Emirates Airlines" hegazkin konpainiarentzat lanean aritzea. Argi dauka, ez duela bere bizi guztia gauza berdinarentzat dedikatu nahi eta hegazkinetaz aspertzean psikologa izatea gustatuko litzaioke, protagonistari tokatutako egoera suntsitzeko.

SORBALDAKO DEABRU MAITEA

Zu ezagutu aurretik. Zu ezagutu aurretik beste bat nintzen. Zu ezagutu aurretik kirola lagunekin herriko auzoetan zehar korrika ibiltzea zen eta berdina zitzaidan komuneko toallen azpian aurkitzen zen balantza. Bizitza askoz errazagoa zen zu sorbaldan garrasika hasi aurretik. Dena errazagoa zen zenbakiak zenbaki zirenean, eta ez nor nintzen adierazten zuten deabruak.

Ez zinen egun batetik bestera deabru bihurtu, hasieran ni salbatzera etorritako aingeru bat baitzinen, edo hori iruditzen zitzaidan niri. Gogoan dut elkar ezagutu genuen eguna. Ohiturari jarraituz, astelehenero bezala, bazkaldu ostean telebista piztu eta han ikusi nituen, jantziekin dotore, pasarelan, argazkilariz inguratuta. Txikitatik gustatu izan zait modaren mundua, baina inork ez ninduen ulertzen. Amari esaten nion bakoitzean, barre egiten zidan hori erokeria zela erantzunez. Arratsaldero bezala, aterkia hartu eta liburutegirantz joan nintzen. Han liburutegiko arduradun sudur zorrotzarengana hurbildu eta haren betaurrekoak sudur puntarantz jaisten zituen bitartean, nik ezer esan aurretik, eskua luzatu zidan betiko liburua eskainiz. Mahai urdinean eseri eta irakurtzen hasi bezain laster, inoiz aurretik ikusi ez nuen neska gazte eder bat gerturatu zen sudur zorrotzarengana. Honek ni seinalatu ninduen eta segituan jabetu nintzen eskuartearen nuen liburuaren bila zebilela. Nireganantz gerturatu eta ea amaitzean utziko nion galdetu zidan eta nik baietz esan nion. Etxera eraman behar izan nuen amaitzeko, hurrengo egunean Maider izena omen zuen hankaluzeari emateko.

Eskola amaitu, etxera joan eta amak txokolatezko ogitarteko erraldoia prestatzen zidan bitartean hartu nuen liburua. Herriko plazan Maiderrekin elkartzean liburua eman eta hitz egiten aritu ginen herriko auzoetatik zehar aurrera eta atzera genbiltzala. Modaren mundua

gustuko zuela esan zidan eta nik neu bazelako bat bilatu nuela sentitzen nuen bitartean, ea horrela jaten jarraitu nahi nuen galdetu zidan. Zer? Ez nuen ezer ulertzen, ederra zegoen eta bokadilo hura! Horrela zainduz ez nuela inoiz lortuko modaren munduan sartzerik esan zidan, beraz egun hartatik “osasuntsu” jango nuela eta kirola egingo nuela sinestarazi nion neure buruari.

Aldaketa txikiak besterik ez nituen egin, ogitartekoa sagar batengatik ordezkatu, ogia jateari utzi eta egunean, gutxienez, 2 ordu kirola egiteari ekin nion. Ama harriturik geratu zen nire aldaketa horiengatik, inoiz ez baitzuen bere alaba txokolatea ez zen besterik jaten ikusi. Ez dakit noiz, nola edo zergatik, baina denbora bat pasatu ondoren, ez nion inongo tentaziorik topatzen txokolatezko ogitartekoari edota amonak maitasun guztiz prestatutako txokolate beroari. Ohituratzat hartu nuen edozer jan ostean balantzara igotzea, nahiz eta sagar bat besterik ez jan. Harro nengoen! Oso harro. Baina bat-batean, begiak itxi eta irekitzerakoan, osasuntsua ez zen zerbait jaterakoan, norbait nabaritzen hasi nintzen sorbalda gainean garrasika eta hori egin ostean, hurrengo egunean ezertxo ere jan gabe egotearekin zigortzen ninduen. Hor ezagutu nuen benetako deabrua! Lagunengatik baztertu ninduen deabrua, ez zuelako nahi kaleko bankuetan eseri elikagai kaloriko haiek jateko. Kirola gogor egitera behartzen ninduen deabrua, nahiz eta hankak dardarka edukiz neure gorputza gehiago egitera behartuz. Plazera ematen zidan balantzan zenbakiak beheraka egiteak, eta nola ez, behatzek eskumuturra inguratzeak.

Ama larritu eta psikologoarengana eramane ninduen. Ez nuen ulertzen, nik ez nuen buruko arazorik! Uko egiten nion janariarekin erlazio txarra nuela diagnostikatzeari, bai zera, erlazio ezin hobea nuen eta.

Baina egunak joan eta egunak etorri, ez nengoen gustura ispiluan ikusten nuenarekin, gehiago nahi nuen! Eta orduan jabetu nintzen laguntza beharrean nengoela, amari baldintza batekin kontatu nion, ez ninduen berriz buruko arazoak dituzten pertsonen lekura eramango. Pixkanaka -pixkanaka, neure buruari gogor egiten hasi nintzen, baina ez zen nahikoa. Nire gorputza arriskuan zegoen eta gehiago eskatzen zidan, baina nik ezin nuen gehiago.

Udako gau batean, ipurtargiak “kirkir”-ean zebiltzan bitartean, izugarrizko minak eraso zidan sabel aldean, zehazki eskuinaldean. Garrasika hasi nintzen erotuta bezala, eta konturatzerako ama nuen ondoan, ospitalera eramateko prest. Ospitalera iritsi eta handik pare bat ordutara “apendizitisa” diagnostikatu zidaten, eta larria gainera. Medikuek amari, nire kasuan, neure gorputz ahulak anestesia jasango ez zuelakoan ezingo nindutela operatu esan zientetik, amak gauak igaro zituen negar batean. Nire gelakidea amona zahartu bat zela gogoratzen dut soilik.

Gau batean, nire gelakidearen heriotz hotza ondoko ohatilatik jasan beharra izan nuen. Heriotza nire bila etorri zela eta ezustean ondokoa hartu zuela iruditu zitzaidan, eta egia esan, nik ez nuen nahi mundu hau atzean utzi. Bizitzen jarraitu nahi nuela ikustarazi zidan eta amari borroka gaingidutuko nuela zin egin nion.

Bidea ez zen erraza izan, batzuetan ispiluan jarri eta neure burua gorrotatzen nuen, baina hor zeuden ingurukoak, deabrua isilarazten laguntzeko. Filmetan bezala, sorbalda batean deabrua

PROSA

eta bestean aingerua dugu, baina batzuetan deabrua aingeruz mozorrotu eta handitzen joaten da aingerua isilaraziz, hori da, bederen nire kasua. Norberaren etsai okerrenak ez dira besteak, guztia buruan dago. Nola liteke hori? Nola izan naiteke nire etsaia? Jaso ditzakedan kritika guztiak, irainak, iritziak,... Hau guztia norberak onar dezake edo ez.